



SESB zenaren hainbat kultur adierazpen agertuko ditu Nazarov konpainiak.

Ekialdeko ohitura eta dantzak asteburuan ikuskizun Bilbon

G.A. / BILBO

Soviet Batasuna zena eta orain Estatu Independienteen Komunitatea osatzen duten nazioen folkloreak gozatu ahal izango da lau egunez Bizkaiko hiriburuan Nazarov Konpainia Errusiarraren eskutik.

Gaurtik igandera, Nazarov Konpainiak sei ekitaldi eskainiko ditu Bilboko Ayala antzokian. Sei ekitaldi hauetan, berrogei artistak, errusiar herri desberdinetako kultura eta ohituren erroetan murgilaraziko dituzte ikusentzule bilbotarrak. Herri eslabo, musulman, kosako zein zingaroen ohituren berri emango dute.

Berrogei artista hauek, SESB zenaren 150 musika tresna ezberdinak jotzen dituzte, baita bertako hizkuntzetan abestu ere. Konpainiako berrogei artistek denetarik pixka bat egiten jakin behar dute, dantzatu, musika tresnak jo eta abestu, denetarik egiten jakitea bait da konpainiaren gakoa. Vladimir V. Nazarov Konpainiako zuzendariak adierazi zuenez, «taldearen lana antzerki musikala da, eta inolaz ere balleta. Gure lanean dantza, musika eta abestia nahastu egiten dira, eta ekitaldi alai,

Bizkaiko Foru Aldundiak PP alderdiak Guggenheimaz esandakoa gezurtatu du

G.A. / BILBO

Bizkaiko Foru Aldundiak Guggenheim museoan egingo duen 1.700 milioitako inbertsioak (85 milioi libera inguru), Kultura Sailaren gainontzeko inbertsioen murrizketa ekarriko ez duela ziurtatu zuen atzo Aitor Esteban foru berbadunak, PPK gai horri buruz egindako adierazpenei erantzuteko asmoarekin.

«Bizkaiko Foru Aldundiarentzat Guggenheim museoaren eraikuntza kultur inbertsio bikaina da. Baina inbertsio horrek ez du inolako eraginik izango Foru Aldundiko Kultura Sailaren gainontzeko inbertsioetan»,

koloretsu, kalitatezkoa eta barregarria izatea lortu dugu».

Ekitaldiaren osagai alai ziertatuta dago, beraien herrialdeek egun bizi duten egoera larriaren aurrean, konpainiako kideek ziurtatu dutenez, «zailtsunak etxean utzi ditugu, baikorrek gara eta alaitasun hori igorri nahi dugu».

Bi orduko iraupena duen ekitaldia Errusia, Ukraina, Moldavia eta ekialdeko errepubliken zehar egindako bidaia dibertigarri eta interesgarria dela diote konpainiako ordezkariak. «Errusiar ohituretan zehar bidaiatzeko aukera bakarra da», diote iturri berberak.

Azken urteotan ekialdean izan diren aldaketek eragin zuzena izan dute konpainian baita kulturaren ere. «Antzoki estatalak jadanik ez dira subentzionatuak, horregatik hamar antzokitik bederatzitik itxi egin dituzte. Kultura handia daukagula diote, baina baikoitzak bere burua finantzatzea ezinezkoa da».

Nazaroven Konpainia errusiarrek, armeniarrek, judutarrek, ijitoek eta azeriek osatzen duten arren, beraien artean gatazkarik ez dagoela ziurtatu du zuzendariak.

Oteiza, Txillida eta Martiarenaren lanak Eskurapenak 91 erakusketan

Kutxak bere azken arte erosketak erakutsiko ditu Donostian 15 egunez

Eskurapenak 91 izenburuarekin Kutxa aurrezki erakundeak bere arte ondareak iaz izan zuen hazkundearen berri eman nahi izan du. Atzoz geroztik, eta hilak 31 bete arte, 30 arte lan ikusgai izango dira Donostian.

JOXAN OIZ / DONOSTIA

Aurrezki erakunde honek Garibai kaleko hitzaldi aretoa apaindu du erakusketa hau egitearren. Astegunetan 17.00etatik 21etara eta jaiegunetan 11.30etatik 13.30etara, erosketa zein hainbat dohaintzatatik eskuratutako lanak izango dira ikusgai.

Pintura da bilduma honen arte mota nagusia, eskultura eta grabaturen bat ikus daitekeen arren. Erosketen atalean, Carlos Mario Arrebuetaren mihise gaineko olio bat, Juan Beltranen bi altzairuzko eskultura, Jose Campsen bi ohol gaineko olio, Txillidaren grabatu sorta bat, Ignacio Etxandiren olio, Rogelio Gordonen kartoi gaineko olio, Flores Kaperotxipiren mihise gaineko olio, Martiarenaren bi mihise gaineko olio, Oteizaren burdinezko eskultura, Jose Salisen ohol gaineko olio bat, Alfonso W Sena lihozko mihise gaineko olio eta Ramon Urainen bi akuarela.

Sorta honen barruan nabarmentzekoak dira Oteiza, Txillida, Kaperotxiki eta Martiarenaren lanak. Lehenengoarena da Izenbururik Gabeko burdin kobreztatua, 1958. urtean burututako eskultura eta erakusketa honen ardatza bihurtu dena (lan honen irudiarekin egin da erakusketa katalogoko azala). Txillidaren grabatu sorta, eskultore donostiarrak Loiolako San Inazioaren jaiotzaren bostgarren mendeurren ospakizunetan argitaratu zen liburua hornitzeko irudiak dira.

Flores Kaperotxipiren olioak ('Haurra buztinezko eltzetsuare-


Gure Arteak 91ko emaitzak ikusgai izango dira Bilbon gaurdanik

BILBO


Gure Arteak lehiaketako X edizioa lan irabazleen erakusketa gaur zabalduko da BBV bankuak Bilboko San Nikolas plazan duen erakustokian, arratsaldeko 7.30etatik aurrera.

Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak pintura, eskultura, grabatu eta argazkilaritza atalean banaturiko lehiaketa hau Donostiatik dator; izan ere, San Telmoko museoan bistaratu ziren hogeitaz hamar artista saritu eta bost bereziki aukeratuen lanak.

Jaurlaritzaren kultur aurrekontua gauzatu gero, iazkoa izango da Gure Arteak arte lehiaketako azken edizioa, 1992. urterako diru sailetan ez baita aurrikusten ekintza honetarako dirurik.



Erosketa zein dohaintza berriei osatu da 'Eskurapenak 91' erakusketa. C. V.



Martiarenaren 'Lezoko Blas'.

kin') Gipuzkoako Kutxaren 1945. urteko egutegian azaldutako irudia da, autoreak Argentinan saldu eta orain Kutxak eskuratutakoa. Azkenik, eta besteak beste, sorta honetan Ascensio Martiarenaren 'Lezoko Blas' olio dago, Madrilko Itsas Arteko Museoan dagoen euskal marinelaren erretratuaren aldaera.

OPARITUTAKO BESTE HAMALAU LAN Kutxako erakustaretoetan beren lanak erakustitako hainbat artistak erakunde honi egindako hainbat opari ere agertzen

✓ Flores Kaperotxipiren olioak Gipuzkoako Kutxaren 1945. urteko egutegian azaldutako irudia da.

Kutxako erakustaretoetan beren lanak erakustitako hainbat artistak oparitutako lanak ere bildu dira.

dira bilduma honetan 'Dohaintzak' atalaren barruan. Besteak beste, Aguado, Arbeloa, Pajaro, Devoyon, Flores Zendoia, Galarta, Mendizabal, Olaizola, Prieto, Sanz, Telleria eta Villanuevaren lanak topa daitezke sorta honen barruan (baita ere autore ezagunak gabeko Massai kulturako ebanozko buru bat).

Gisa berean, erakusketa honetan ikus ahal izango dira artista berrien 1990eko lehiaketan parte hartutako hainbat lanak. Besteak beste, Arribasen eskultur lan bat eta Lopez Gomezen pintura.

DEUSTOKO UNIBERSITATEA DONOSTIAKO EGOITZA - E.U.T.G

MUNDAIZ BIDEA, 50
DONOSTIA
Tfna. 27 31 00

DEUSTOKO UNIBERTSITATEAN 25 URTEZ GORAKOAK SARTZEKO PROBA DONOSTIAKO EGOITZAN

Honako fakultateetan ikasteko:
Enpresariales eta Ekonomia Zientziak -ESTE-
Filosofia eta Letrak:
Historia
Filologia Hispanikoa
Euskal Filologia.
Turismo Eskola.

Sarrera probak egiteko matrikula epea:
Urtarrilaren 15etik otsailaren 15a arte

Informazioa:
Idazkaritza Nagusia,
Mundaiz Bidea, 50
Tfna. (943) 273100.
DONOSTIA